

	"ORREAGAKO AMA IKASTETXEA"	2018/2019
---	-----------------------------------	-----------

Haur Hezkuntza 5 urte

HELBURU OROKORRAK
Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala: - Gorputzaren oinarritzko beharrak identifikatu. - Eguneroko jardueretan autonomia izatea. - Eguneroko bizitza erregulatzen duten arauak bereganatzea. Ingurunea ezagutzea: - Kontaketa kalkulatzeko estrategia gisa erabili eta kantitate errazei buruzko zenbaki kardinalak erabiltzea. - Zenbakiak eguneroko bizitzan duten funtzioaz ohartzea. - Oinarritzko gorputz geometriko batzuk ezagutzea. - Izaki bizidunen eta naturaren ezaugarri eta aldaketa batzuk ikustea. - Jokabidezko jarraibide egokiak pixkanaka hartu. Hizkuntzak: Komunikazioa eta irudikapena: - Komunikazioko ohiko egoeretan aktiboki parte hartu eta entzutea. - Hizkuntzei buruzko jarrera positiboa izatea. - Hizkuntza idatziari hurbiltzea. - Ordenagailua eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzen hastea. - Plastika-hizkuntzaren osagai batzuk esperimendu eta aztertzea (linea, forma, kolorea...). - Dramatizazio jardueretan, joko sinbolikoetan eta gorputz adierazpeneko bestelako jokoetan parte hartzea.

EDUKIAK ETA DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
UDAZKENA "UDAZKENA KOLORETAN" " Artzain gezurtia " GABONAK "Olentzero eta Mari Domingi" PROIEKTU IREKIA: "DINOSAURIOAK"	NEGUA HOTZEZ DAR-DAR "Makilakixki" GORPUTZA ETA INAUTERIAK "Ziripot eta Miel Otxin" PROIEKTUA "FLOTAZIOA" eta "MEKANIKA: INDARRA ETA MAKINAK"	UDABERRIA GORA UDABERRIA " Babarrun ale magikoak " " Hansel eta Gretel " " 3 txerrikumeak " PROIEKTU IREKIA

GAI BAKOITZARI DAGOZKION: ipuinak (goian aipatzen direnak), hiztegia, olerkiak, asmakizunak, abestiak, artelanak, CD-roma,...

HONEKIN BATERA IKASTURTE GUZTIAN ZEHAR ARLO HAUEK LANDUKO DITUGU:

MATEMATIKA

- Zenbakiak (1-10)
- Formak
- Seriazioak
- Neurriak
- Kontzepuak (Oinarrizkoak, denborazkoak, espazialak)
- Eragiketak
- Magnitudeak

HIZKUNTZA

- Grafomotrizitatea: Aurreidazketa lantzeko ariketak (Hizkien noranzkoa eta esku trebetasuna).
- Hizkiak:
 - *Bokalak idatzi eta ezagutu.
 - * Kontsonanteak idatzi eta ezagutu.
- Aho-Hizkuntza:
 - *Azalpen emateko gaitasuna (euskaraz).

PLASTIKA

- Koloreak eta koloreen nahasketa.
- Teknika eta material desberdinen erabilera.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ARLOKA

NORK BERE BURUA EZAGUTZEA ETA AUTONOMIA PERTSONALA:

1. Bere gorputzaren eskema eta kontrola, bai globala, bai atalka, hobetzen ari dela erakustea eta bere gaitasunetan konfiantza eta besteekiko errespetua izatea.
2. Jokotetan parte hartzea, mugitzeko gaitasuna eta manipulatzeko trebetasunak agerian utziz eta sentimenduen eta emozioen adierazpena erregulatuz.
3. Oinarrizko beharrak asetzeko ohiko jarduerak modu autonomoan eta aktiboan egin eta zainketa pertsonaleko, higieneko, osasuneko eta ongizateko ohiturak finkatzea.

INGURUA EZAGUTZEA:

1. Inguru hurbileko objektuak eta elementuak bereizi eta haietan eragitea. Elementuak eta bildumak berdintasun eta desberdintasun nabariaren arabera taldekatu, sailkatu eta ordenatzea, magnitude batzuk bereizi eta elkartzeko eta multzoak zenbatzea.
2. Natur ingurunearekiko interesa izan, haren osagai batzuk identifikatu eta izendatzea, elkarren mendekotasuneko lotura errazak ezarri, natura zaindu eta errespetatzeko jarrerak izan eta hori kontserbatzeko jardueretan parte hartzea, Nafarroako paisaiak erreferentziatzat hartuta.
3. Inguruko talde sozial garrantzitsuenak, haien antolaketa ezaugarri batzuk eta eskaintzen diren zerbitzu komunitario nagusiak identifikatu eta ezagutzea. Horien ezaugarrien eta agerpen kulturalen adibideak eman eta horien garrantzia baloratzea.

HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA:

1. Ahozko hizkuntza beren adinekoekin eta helduekin harreman positiboak izateko modurik egokienean erabiltzea, komunikazio asmoen arabera, ahozko mezu desberdinak ulertu eta entzuteko arretazko eta errespetuzko jarrera izatea.
2. Ikasgelako eta inguru hurbileko testu idatziekiko interesa izan eta haiek erabiltzen, haien asmoak ulertzen eta idatzizko kodearen ezaugarri batzuk ezagutzen hastea. Ikasgelan irakurri eta idazteko jardueretan interesa izan eta haietan parte hartzea.
3. Arte eta ikus-entzunezkoen hizkuntzen baliabideak, materialak eta teknikak erabiliz adierazi eta komunikatu, haien ahalbideak aztertzea, beren produkzioekin gozatu eta bere esperientzia komunikatibo eta estetikoak besteekin partekatzeko interesa izatea.

HEZKUNTZA ARRETA	Asteko saioak: 1	Ikasturteko saioak: 31
------------------	------------------	------------------------

HELBURU OROKORRAK ETA EDUKIAK
HELBURU OROKORRAK: Sentimendu eta emozioez jabetzea eta hauek identifikatzea: haserrea, tristura, urduritasuna, alaitasuna, harridura, beldurra, nekea, maitasuna. Taldean lan egiten ikastea: besteak errespetatuz, lagunduz, entzunez... Laguntza eskatzeko gai izatea. Norbere burua onartzea eta maitatzea. Norbere gaitasunez ohartzea eta gaitasun horiek ezagutzea. Norbere mugak ezagutu eta onartzea eta hauek hobetzeko gaitasuna lantzea. Esfortzuaren garrantziaz jabetzea. Jokabide egokiak bultzatzea. EDUKIAK: Orokorrean saio hauetan ikasturte osoan zehar BALOREAK eta EMOZIOAK landuko ditugu. Urtean zehar sortzen diren gai ezberdinak landuko dira: generoa eta sexualitatea, ihafterietako pertsonaiak, Gabonak... Harremanak sendotzeko jolasak ere landuko ditugu.

INGELESA	Asteko saioak: Iraila-Ekaina: 3/Urria-Maiatza: 4	Ikasturteko saioak: 131
----------	--	-------------------------

HELBURU OROKORRAK
HELBURU OROKORRAK - Hizkuntza besteekin komunikatzeko baliabide bat bezala ezagutzea eta dagokion garrantzia ematea. Hizkuntza adierazteko, irudikatze, ikasteko eta beraien gozamenerako baliagarria izatea. - Sentimenduak eta ideiak ahoz adierazteko gaitasuna garatu. Egoera eta beharren arabera beste komunikatzeko lengoia ezberdinak erabiltzen ere ikastea. - Beste haur eta helduen mezuak ulertzeko jarrera positiboa garatzea bai ingeleran baita beste hizkuntzetan ere. - Zenbait testu ulertu, antzeztu eta errepikatzeko jarrera positiboa adierazi. Irakurketa eta idazketa sistemaren erabilerarekiko interesa agertzea. Komunikatzeko modu berri bat dela ulertzea. - Ingeleraz gelan hitz egiten hastea komunikatzeko helburuarekin. Lagunekin eta irakaslearekin errepikatzen diren hitzak erabiltzea. - Euskaraz landuko dituzten gaiak ingeleraz ere lantzea, gaiaren inguruko ulermena sendotzeko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
Errutinak: asteko egunak, zenbakiak, hilabeteak, urtaroen izenak, eguraldia, sentimenduak Egiturak: What day/date/month/season is today?, What's the weather like in Garraida?, How do you feel today?		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
Hiztegia: - Hello, goodbye, yes, no... - Zenbakiak (1-10)	Aurreko hiztegiaren errepaso eta erabilpena Hiztegia:	Aurreko hiztegiaren errepaso eta erabilpena Hiztegia:

- Koloreak (<i>red, yellow, green, blue...</i>) - Sentimienduak (<i>happy, sad, angry, nervous, embarrassed...</i>) - Dinosaurioak (<i>teeth, tail, claws, crest, hervivore, carnivore...</i>) Egiturak: - <i>What's your name?</i> - <i>How are you? I'm fine, thank you.</i> - <i>What colour is it?</i> - <i>How do you feel today?</i> - <i>Is it big/small?</i> - <i>What did they eat? Meat, plants...</i> - Aginduak eta akzioak ezaugutu eta burutu (sit down, Put on..., Remember!, look!, hop!, jump!, run!)	- Gorputza (<i>legs, arms, eyes, ears...</i>) - Negua (jantziak - <i>coat, hat, boots...</i>, paisaiak - <i>snowy, cold, windy...</i>) Egiturak: Aurrekoak eta - <i>What is it?</i> - <i>It's my leg/arm....</i> - <i>What are you wearing?</i> - <i>I'm wearing a...</i> - Aginduak eta akzioak ezaugutu eta burutu (Let's play with, Be quiet!, Show me..., Point to..., Stand up!, sit down, circle, open/close, tidy up!, Try again!, Let's tidy up)	- Denbora librea (<i>go fishing, climb trees, play with my friends...</i>) - Ikasleek erabakitako proiektua Egiturak: Aurrekoak eta - <i>Can you ...? Yes, I can / No, I can't</i> - <i>Do you like? Yes, I do /No, I don't</i> - - Aginduak eta akzioak ezaugutu eta burutu (Pick up!, count, open/close, Clap, Jump, tap, run, shake, wiggle your nose, stand in order...)
--	---	--

EBALUAZIO IRIZPIDEAK
• Xede komunikatzailea duen eta adinera egokituak dagoen ahozko komunikazioa erabiltzea (laguntza eskatu, eskerrak eman, agurtu). • Adinera egokituak eta kontestuan ematen diren ahozko mezuak ulertzea (argibideak, galdera-erantzunak...)

MUSIKA	Asteko saioak: 1	Ikasturteko saioak: 31
---------------	-------------------------	-------------------------------

HELBURUAK:

- Ahotsak, gorputzak eta objektuek (instrumentuek eta abar) soinua sortzeko dituzten aukerak aztertzea.
- Haur melodia errazak kantatzea.
- Kantuak dramatizatzea.
- Mugimenduzko jokoak eta dantza errazak ikastea.
- Ingurune soinuakiko interesa piztea eta haien ezaugarriak identifikatzea.
- Entzunaldietan, entzundako elementu ezberdinak identifikatzea.
- Musika saioetan izan beharreko jokabide arauak ezagutzea eta errespetatzea.
- Musika, hautemateko zein adierazteko modu erabiltzea.
- Musikarako interesa sortzea.

EDUKIAK:

Ikasturtean zehar honako edukiak landuko dira:

1. DANTZA ETA MUGIMENDUA:

- Gorputz adierazpena.
- Keinuak lagundutako kantua.
- Dantza errazak.

2. INTERPRETAZIOA:

- Ahotsa: adierazpenerako baliabideak.
- Kantua: haurrena, AB forma musikala.
- Musika elementua: tempoa.
- Instrumentuak: Gorputza, perkusio txikia...
- Oinarritzko erritmoak: pultsua.
- Grafiak: ez ohikoak.

3. ENTZUTEA:

- Ingurune natural eta sozial hurbileko soinuen ezaugarriak.
- Entzunaldietako portaera arauak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Gorputzeko atalak erabiltzea adierazpide gisa.
- Keinuak eta mugimenduak egitea kantuaren hitzen arabera.
- Dantza errazak egitea.
- Ahotsaren soinu aukerak erabiltzea eta aurkitzea.
- Haurren melodia errazak kantatzea, eremu melodiko egokian.
- Imitazio bidezko ahots-elkarrizketa izatea.
- Erritmo eskema errazak, pultsazioan oinarrituak, interpretatzea.
- Ingurune sozial eta naturaleko soinuen ezaugarriak hautematea eta ahal den heinean identifikatzea.
- Entzunaldietako arauak barneratzea, denen ekarpena baloratuaz eta errespetatuaz.

PSIKOMOTRIZITATEA	Asteko saioak: 2 (astelehena eta asteazkena)	Ikasturteko saioak: 71
-------------------	--	------------------------

EDUKIAK
1. Gorputza eta norberaren irudia Nork bere ezaugarriak pixkanaka identifikatu eta onartzea. Gorputz eskema. 2.- Jokoa eta mugimendua Jokoa gustukoa izatea. Jokoetan eta ariketa fisikoetan aritu, parte hartu eta ahalegintzeko dituen gaitasunei buruzko konfiantza. Jokoan aritzeko arauak ulertu eta onartzea, haien erregulazioan parte hartzea, gozatu eta besteekin harremanetan sartzeko beharrezkoa dela ohartzea. 3.- Zainketa pertsonala eta osasuna

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
Txiribuelta aurrera/atzera egiten du. Motor arloan intentsitatez aritzen da. Txingoka ibiltzen da.